

ANGEL COLOMEN ERC ALDERDIAK BERE ALDETIK ANTOLATU DITU EKITALDIAK SANT BOIN

Katalunian bihar egingo den Diada ez da bateratua izango

Katalunian bihar egingo den Diada berezia da, 1976. urtean Sant Boin egin zen Diada bateratuaren 20. urteurrena ospatuko baita. Baina aurtengo ospakizuna ez da bateratua izango Kataluniako Ezker Errepublikarrak (ERC) ez duelako Sant Boiko ekitaldietan parte hartuko.

Erredakzioa / Donostia

ERC alderdiak Sant Boi de Llobregateko ekitaldietan ez parte hartzea erabaki zuen atzo, ekitaldi hori «folklorikoa eta nostalgikoa delako, eta inola ere ez errebindikatiboa». Alderdiaren batzorde iraunkorra atzo bildu zen parte hartu ala ez erabakitzeko, eta azkenean ezetzak irabazi zuen.

Angel Colom alderdiko idazkari nagusiak atzo azaldu zuenez, biharko ekitaldia «mami gabekoa, ez errebindikatiboa eta batasun faltukoa izango da. Beharpekin ekintza batekin bat egitea litzateke». Hala ere, ERCk bihar eguerdian ekitaldi bat egingo du Sant Boin, eta hemen hitz egingo dute Colomek eta Jordi Carbonellek, 1976ko Diada bateratuan hitz egin zutenetako batek. Arratsaldean ohiko manifestaldia egingo du Catalunya Plazatik irten eta Rafael de Casanovaren oroitarrian amaitzeko. «Katalunia Europako Estatua» lelopean.

Kataluniako Ezker Errepublikarrak aurreko egunetan iragarri zuen ez zuela Sant Boiko ekitaldi ofizialetan parte hartuko Kataluniako PPko ordezkariak esku hartzen bazuten. ERCk arrazoitu zuenez, PP alderdia ez da katalanista eta, gainera, Sant Boiko ekitaldiek ez dute behar luketen kutsu errebindikatiboa izango. Gutxienez, biharko ekitaldi ofizialetan Kataluniaren autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko eskatu zuen alderdiak.

Onze de Setembre-n, bihar, ospatuko den Diada dela-eta batzorde batek ekitaldi mordoa antolatu zuen gaurko eta biharko, 1976. urtean Sant Boin ospatu zen Diadaren «izpiritu ba-



Iazko Diadan Catalunya Lliurek independentziaren alde deitutako manifestazioa.

EFE

teratua berreskuratzeko eta bai Kataluniaren askatasunarekiko bai herri gisa duen nortasunarekiko konpromezua aldarrikatzeko».

1976ko Diada • 1976. urteko irailaren 11n Sant Boi de Llobregateko Catalunya Plazan jende mordoa bildu zen eta oinarrizko

hiru aldarrikapen egin ziren: «Libertat, amnistia i estatut d'autonomia (askatasuna, amnistia eta autonomia estatutua». Alderdi politiko eta erakunde nahiz gizarte talde guztiak biltzen zituen Assemblée de Catalunya-ren eskaerak ziren hauek.

Ekintza bateratua izan zedin nahi zuten, ezin alderdi politi-

kok ez eskuratzeko protagonismoa. Octavi Saltorre, Lligako kide historiko eta abokatuak, Jordi Carbonell irakasle nazionalistak eta Miquel Roca Convergenciako kideak hitz egin zuten orduan.

Diadaren batzorde antolatzaileak aho batez onartu zuen biharko ekitaldietan Jordi Pujol Generalitateko presidentek hitz egingo zuela, baita Joan Raventos Legebiltzarreko presidentek eta Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi guztietako buruek ere. Baina ERCren oharrak entzunda galdeketa hasi zituzten alderdiek, eta egitarau ofizialari alternatibak aurkeztu zitzaizkion. PP alderdia prest azaldu zen Aleix Vidal Quadras Kataluniako PPko lehendakariak ez hitz egiteko Pujolek, Raventosek eta Sant Boiko alkateak soilik hitz egiten badute.

Badaezpada ere, Generalitateak neurri bereziak jarriko ditu abian bihar eta mosso gehiago egongo dira bazterrek zaintzen.

Diadari lotuta Tarragonako, Viceko, Solsonako eta Gironako apezpikuek orri batzuk banatu zituzten elizetan igandean, «Jainkoaren eta giza eskubideen izenean, Elizak nortasun krisian edo dagokien askatasunik gabe bizi diren herriak eta nazioak defendatu behar dituela azpimarratzeko».

Bestalde, Kataluniako *El Punt* egunkariak aurreko egunetan Espainiako Estatuko 523 politikori galdetu zien ea zein iritzi zuten Kataluniaren independentziari buruz. Eta horren arabera, % 43k uste dute Kataluniak eskubidea duela independentziaz eztabaidatzeko eta % 41k aurkako iritzia dute. X

Gaztela-Mantxako presidentea Rodriguez Ibarrekin bat azaldu da eta autonomien finantzaketa gaitzetsi du

Extremadurako presidentek erreferenduma egiteaz esandakoak kritika ugari eragin du

Erredakzioa / Donostia

JOSE BONO Gaztela-Mantxako presidente sozialistak atzo esan zuen «Extremaduraren defentsan» bat egiten zuela Juan Carlos Rodriguez Ibarra Extremadurako presidentearekin. Baina ez zuen argitu Rodriguez Ibarrek esandakoei buruz zer pentsatzen zuen. Extremadurako presidentek erreferenduma egitea eskatu zuen igandean PFEZaren % 30 komunitate autonomoen esku utzi ala ez Extremadurak erabaki dezan.

Bonoren hitzetan, autonomiak

finantzatzeko PPK landu duen sistemak «Espainia zatitzen du, eskualde batzuen mesedeko da eta eskualdeen arteko elkartasunaren aurkako». Haatik, Juan Ignacio Borrero Senatuko eta Extremadurako PPko lehendakariak kritikatu egin zuen Rodriguez Ibarrearen proposamena, «Extremadurako herritarren enfrontamendua» besterik ez delako ekarriko.

Manuel Chaves Andaluziako Juntako presidentek adierazi zuen Extremadurako presidentek erreferenduma eskatu zuela «negoziatzeko aukera txikia» de-

lako. «Honelako gaizki ulertzeak eragozteko ezinbestekoa da Jose Maria Aznarrek lehendakari autonomoei dei egitea», finantziario modua zehazteko, Chavesen ustez.

Jose Manuel Fernandez Santiago Gaztela eta Leongo Juntako bozeramaileak baztertu egin zuen erreferendumaren aukera, «une honetan jarrera horrekin bat egiteko baldintzak ez ditugulako». Autonomiak finantzatzeko CiUk eta PPK landu duten sistema Gaztela eta Leonen mesedeko dela esan zuen, Juntak Gobernuari egindako eskaeren

% 90 onartu dela arrazoituta.

Mariano Rajoy Espainiako Administrazio Publikoetako ministroaren hitzetan, Ibarrek esandakoak «ez du inolako zentzurik» eta «egoera nahasi» besterik ez du egiten.

Kataluniako Unio Democratica-ko (UDC) Josep Antoni Duran i Lleidak ziurtatu zuen Ibarrearen asmoa dela Extremadura «laguntzetatik» bizitzia. Rodriguez Ibarrek «subinonatuak gizarte baten alde egin du, komunitate autonomoa suzperdu eta ahaleginaren eta ondo egindako lanaren kultura bultzatu beharrean». X

Pasquarentzat Alain Juppek hartutako bidea «ez da ona»

Lehen ministroaren politika kritikatu du Barne ministro ohiak

Allande Sokarros / Baiona

ALAIN JUPPE Frantziako lehen ministroaren eta Charles Pasqua RPR alderdiko buru-kidearen arteko solasaldiak ordu laurden bat baino ez zuen iraun atzo goizean Matignongo Jauregian. Gobernuaren egoitzatik irteetan hizketaldiaren berri eskatu ziotelarik kazetariak. Pasquak zera erantzun zuen: «Giroa ona izan da; jaramon egitea, aldiz, ez hainbat». Hitz gutxi horiekin Pasquak baietsi zuen Juppek ez zituela ontzat hartu bezperan berak adierazi zituen Gobernuaren aurkako kritika zorrotzak.

Izan ere, Sant-Nazer hirian (Loire Atlantique) Bretainiako RPRko 500 kideren aurrean, Charles Pasquak Jupperen gobernuaren jokaeraz deba-luiki esan zuenez, «nire iritzian aukeratutako bidea ez da ona; ez garamatza, ez Frantziaren handitasunerat, ez ekonomia ongizaterat, ez gizarte justiziarat ere; kontua da, imaginazioz jokatu behar dela gaur egungo apustuei heltzeko». Bilera horretan bertan, Charlès Pasqua nahiko kritikoa azaldu zen Maastrichteko Itunean finkatutako irizpideei begira, eta «ekonomiara, enpresetara zein herritarren interesetara egokitu-tuago diren jokabideak bultzatu behar direla iritzi dio. X

'Army auziko' fiskalak 168 urteko kartzelaldia eskatu du pubaren jabeentzat

Efe / Sevilla

SEVILLAKO adin txikikoen korrupzio auziko fiskalak 168 urteko kartzela zigorra eskatu du 14 urtetik 17ra bitarteko mutikoak prostituitzen ziren hiru tabernen jabeentzat. Atzo ezagutarazi zuten idatzian Marta Valcarcel fiskalak 168 urteko kartzela eskatu zuen Carlos Saldaña eta Jose Antonio Gonzalez Losada. Army pubaren jabeentzat eta enkargatuarentzat. Horiei egotzi zien adin txikikoak galbideratzeko 56 delitu, prostituzioa bultzatzea eta ekintza lizunak egitea. Valentino eta El 27 lokalen jabe den Manuel Ibañezentzat, bestalde, 87 urteko kartzela zigorra eskatu zuen.

Lokal horietako bezeroei dagokienez, fiskalak urtebeteko kartzela eskatu zuen Manuel Rico Lara Sevillako Epaitegiko Adin Txikikoen epaile ohiarentzat; zazpi urte Antonio Tejadorentzat; hiru urte Jorge Cadaval Los Morancos bikoteko kidearentzat; eta urtebete Javier Gurrutxaga kantariarentzat. X